



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko apirilaren 8an

27 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Zerga batzuk aldatzeko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Legea, eskubide sozialen gutun baterako. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zirugiako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- “San Frantzisko Xabierkoa” zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Nafarroako Foru Komunitateko Foru Administrazioa eta Defentsa Ministerioaren arteko hitzarmen mar-koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean destinatuta dauden unitate, zentro eta erakunde militarre- tako kideek kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jarduerak egin ditzaten. Osoko Bilkurak baimena emanda (20. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu Estatu Batuak eta Britania Handia Ira- ken aurka etengabe burutzen ari diren eraso militarrik. Osoko Bilkurak onetsia (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da animalia basatien erasoan aurrean neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (21. or.).

G SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak lege esparru propioa definitu zuen babesteko moduko balio bereziak dituzten Nafarroako eremuak babestu, kontserbatu eta hobetzeko. Foru lege horrek hainbat aurreikuspen egiten zituen gai horren gainean, Espainiako legeetatik hartuta, eta gaiari buruzko legedi sektorial korapilatsua egituratu zuen.

Ekosistema bereziki interesgarriak dituzten naturgune batzuk aipatzeko, gizonaren eskuhartzeak gutxi aldatu dituen lurralde eremuak daude; izan ere, eremu horietako paisajeak, eskosistemak eta formazio geomorfologikoak balio arraroa dute, eta arreta berezia eman behar zaio horien kontserbazioari.

Errege Bardea Nafarroako Foru Komunitateko hegomendebaldeko lurralde zabal bat da; euri gutxi eta haiek uholde gisakoak izaten dituzte; uda beroak eta negu aski hotzak; horren ondorioz, ekaitzek higadura handia sortzen dute, eta ez zoruak ez landareek ez diote ur horri etekin handirik ateratzen.

Geomorfologiaz, Errege Bardea Ebroko behe-raguneak osatzen duen unitate geologikoaren iparreko ertzean dago. Beheragune horrek tertziario kontinentaleko eta kuaternarioko materialak ditu

osagai. Pirinioak eta Mendikate Iberikoak, eta bai beste batzuek ere, bultza egiten diote Errege Bardeari, eta bertako deformazio tipikoak sortzen dituzte: toles monoklinalak, oso buzamentu leunekoak.

Sustratu geologikoa gatz eta kisu handikoa baita eta bertako klima ere oso lehorra, gesal lur asko egoten dira Errege Bardeako zoruan. Eta gainera, euri urak zoruan iragazi eta zoruaren higadura mekanikoa sortzen du: ordoki eta erreka ikusgarri ederrak, landaretza gutxikoak eta eragin handikoak.

Errege Bardeako landaretza, estepetako eta Mediterraneoko landaretza da. Osagai mediterrania ezagun da, ontina eta sisalloa ausarki dagoelako, eta espartzudia ere bai. Landaretza hori, jakina, ingurune kondizioek eta giza eskuhartzeak sortua da, baina kasurik hoberenean sastraka altu edo antzeko komunitate subserialen bat bilaka liteke. Errege Bardeako flora eta landaretzaren interes botanikoa Ebroko Beheragunearen berezitasun klimatikotik heldu da; horregatik, Habitat-Errolda Nazionalean ere –Habitategi buruzko maiatzaren 21eko 92/43 EEE zuzentarauaren arimuan sortua– sartu da Errege Bardea.

Faunak ere ale interesgarri asko ditu: anitz arrain, anfibio eta narrasti espezie; baina hegaztiak dira agian aipagarrienak, Nafarroan soilik ez baina Europan ere garrantzi larria ematen baitiote Errege Bardeari: aipa dezagun, adibidez, saizuria. Harrapari populazioak, oro har, handiak dira, eta berriki giza eskuhartzearen mehatxua sufritzen hasi dira; horregatik, zenbait jarduera arriskugarri direla medio, ezinbestekoa da berehala arautzea. Estepako hegaztiak –basoilarra, basoiloa, eperzuria, larreoiloa– komunitate handia osatzen dute Errege Bardean eta haiek kontserbatzeko ezinbestekoa da nekazaritzako ingurumenari buruzko neurriak hartzea, labore estentsiboaren gaur egungo araubidea faboratzeko.

Aurrekoaz gain, esan beharra dago Errege Bardearen eskualde osoaren egoera egokia izan dadin komenigarria dela bertako eremu batean –tiro poligonorako gordetakoan, hain zuzen– burutzen ari den erabilera eta jarduera berraztertzea. Nahi hori hainbat aldiz onetsi izan du Nafarroako Parlamentuak. Horregatik, aipaturiko erabilera arautzen duten indarreko harreman juridikoak bukatu ondoren, eta Errege Bardearen ingurugirogarapen osoa eta Foru Lege honen betetze osoa lortzearren, bidezkoa da Administrazio Publiko eskudunek beharrezkoak diren neurri eta ekimen guztiak har ditzatela aipaturiko gaur egungo egoera gainditzeko. Hori guztia, eskualde horrekin zerikusia duten balizko ingurugiro-kalteen azterketa egin ondoren.

Ingurumena Errege Bardean babesteko lege-araubidea bilakatu joan da Lurrealde Babestu eta Erabiltzeko Herrialdeko Hirigintza arauari buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legeak lehenbiziko natur erreserbak deklaratu zituenetik (Rincón del Bu, Caídas de la Negra) harik eta natur erreserbak mugatu ziren arte. Berrikiago, kasuko toki entitate eskudunak, hau da, Errege Bardeako Komunitateak, sustatuta Natur Baliabideak Antolatzeke Plana onetsi ondoren (irailaren 7ko 266/1998 Foru Dekretua). Elkarte tradizional horrena lehenbiziko ekimena izan da Nafarroan natur baliabideak antolatzeke plan bat itxuratzeko. Araudi horretan Errege Bardea Natur Parke deklaratu da, delako Plana itxuratu eta onesteko tramitea behin egin ondoren, Nafarroako naturguneen gaineko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legearen 21.1. artikulua arabera.

Errege Bardeako natur parkea deklaratu jotzen da figura juridikorik egokiena, aurretik zeuden baloreak eta ekosistemak zaintzeko ez ezik, plangintza eta kudeaketa osoak eta koherenteak bermatzeko ere, egungo eta etorkizuneko eskakizunak bermatzearren, garapen eutsigarriaren ikuspuntutik. Natur parkea da, halaber, udal gozamenkideek, Junta Nagusiaren eta ordenantzen bidez, azken hamarkadetan baliatu dituzten erabilera- eta kudeaketa-formulak hobekien zaintzen duen botere publikoen deklarazioa. Era berean, ohiko sektoreek eta artisauek ekotzi bertako produktuen balio ekonomiko diferentziala bultzatu eta handitu egiten ditu natur parkeak, eta, aldi berean, kanpoko baliabide ekonomikoak erakartzen ditu Bardeara eta handik hurbilen dauden hirguneetara, eskualdeko gizarte- eta ekonomia-garapeneren mesederako.

Nafarroako ubidearen interes orokorra Estatu-ko lege batean eta Nafarroako Gorteen beste foru lege batean deklaratu dago, eta horrek zilegi

egiten du ubidea hemen ere aipatzea; izan ere, parkearen lurraldearen baitan eraiki daiteke, zati txikia hartuko badu ere, edota lurralde hori zeharkatu. Hortaz, parkea sortzeko helburuekin bateragarria bada ere, ubidea ezin izanen da parkeko gune jakin batzuetan sartu, natur erreserbatzat edo hegaztien babesgune berezizat jotakoetan, alegia.

Entitate horrek berak Parke berriaren kudeaketa berari egozte eskatu du. Kasurako den araudiak ez du aukera hori ezintzen, eta gainera hartara hurbildu egiten zaizkio antolatze eta funtzionamendu lanak lurraldez ere hurbilen bizi denari, nahiz eta beste zenbait erakundek parte har dezaketen kudeaketan.

1. artikulua. Natur parke deklaratu da Nafarroako Errege Bardeak hartzen duen lurralde osoa. Babes figura horretatik kanpo geratzen dira honako erabilera bereziko eremuok: Hondo de Espartosa (272 ha.), Bandera (43 ha.), Cinco Villas (13 ha.) eta tiro poligonoa (2.244 ha.).

Natur parkearen mugak, 1998ko edizioako Nafarroako 1:5.000 Mapa Topografikoaren arabera, honakoak dira:

Iparraldetik: X 632138.19; Y 4383664.41 UTM koordenatu puntutik hasten da, Tres Mugas esaten zaion parajea, zeinean bat egiten baitute Sadabako (Zaragoza), Zarrakazteluko eta Errege Bardeako mugapeek. Handik ipar-mendebalearrantz segitzen du, Zarrakazteluko muga-lerroarekin bat, X 628219.34, Y 4685776.48 UTM koordenatu punturaino; bertan La Quemada deitu parajea jotzen du, Melidako udalerrian, X 626308.91; Y 4687304.79 UTM koordenatu punturaino, non berriz batzen baita Zarrakazteluko udalerriarekin. Handik ipar aldera segitzen du X 623587.67; Y 4691203.31 UTM koordenatu punturaino, non Santacarako mugapearekin batzen baita, eta muga hori bera segitzen du X 620575.59; Y 4691133.04 UTM koordenatu punturaino, non Melidako mugapearekin batzen baita. Handik hego-ekialdera segitzen du Murillo el Cuendeko mugapea jo arte, X 616204.63; Y 4682930.64 UTM koordenatu puntuan, eta handik mugape horrekin bat segitzen du X 616204.63; Y 4682930.64 UTM koordenatu punturaino, zeinean Caparrosoko mugapea hasten baita. Mugape horrekin bat segitzen du X 608894.11; Y 4682139.14 UTM koordenatu punturaino.

Hegoaldetik: Tuterako mugan hasten da, X 618641.62; Y 4665961.77 UTM koordenatu puntuan, eta Tuterako mugarekin bat segitzen du X622437.05; Y 4659994.93 UTM koordenatu punturaino, non Cabanillasko mugapearekin batzen

baita. Muga horrekin bat segitzen du hego ekialdera X 625825.38; Y 4658470.50 UTM koordinatu punturaino, non Fustiñanako mugapearekin batzen baita. Herri horren mugarekin bat segitzen du. X 626490.62; Y 4659400.15 UTM koordinatu puntuan muga hori utzi eta hegoaldera zuzen segitzen du, X 626488.91; Y 4659367.96 UTM koordinatu punturaino. Handik ekialdera segitzen du 475 metroko goiera lerroarekin bat. X 625910.22; Y 4659618.11 UTM koordinatu puntuan lerro hori utzi eta handik zuzen X 625902.75; Y 4659924.25 UTM koordinatu puntura iristen da. Bertan 495 metroko goiera lerroa hartu eta iparrean segitzen du X 626067.03; Y 46603323.74 UTM koordinatu punturaino, eta handik zuzen X 626127.31; Y 4660283.53 UTM koordinatu puntura iristen da. Han 500 metroko lerroa hartzen du ekialdera, X 626618.86; Y 4659959.38 UTM koordinatu punturaino. Handik zuzen berriz lotzen zaio Errege Bardearen mugapeari X 626622.97; Y 4659931.8 UTM koordinatu puntuan, X 603325.96; Y 4651057.90 UTM koordinatu punturaino, non Buñuelgo mugapea hasten baita. Herri horren mugarekin bat hego-ekialdera segitzen du Zaragozako probintzia jo arte, X 634359.84; Y 4646748.08 UTM koordinatu puntuan.

Ekialdetik: Aragoiko erkidegoa du mugakide, hasi X 634359.84; Y 646748.08 UTM koordinatu puntutik harik eta X 632758.65; Y 4670562.15 UTM koordinatu punturaino, bertan muga hori utzi eta Cinco Villasko kanalarekin parez pareko korridore bat osatzen du, kanalaren hegitik 25 metro ekialdera, X 632840.55; Y 4671602.28 UTM koordinatu punturaino, non berriz lotzen baitzaio Aragoiko mugari Parkeko ipar muga jo arte X632138.19; Y 4683664.41 UTM koordinatu puntuan.

Mendebaldetik: X 608894.11; Y 4682139.14 UTM koordinatu puntuan hasten da. Handik 300 metroko goiera lerroa hartzen du ekialdera X 610391.53; Y 4681294.97 UTM koordinatu punturaino, han lerro hori utzi, hego aldera jiratu eta zuzen X 610492.13; Y 4679678.87 UTM koordinatu punturaino. Han berriz hartzen du 300 metroko goiera lerroa mendebal aldera Villafrancako udalerria jo arte X 608851.17; Y 4680168.17 UTM koordinatu puntuan, eta muga horrekin bat segitzen du hego ekialdera X 610288.87; Y 4679603.13 UTM koordinatu punturaino, bertan Cadreitako udalerriarekin batzen baita eta herri horren mugarekin bat segitzen du Valtierra udalerrira jo arte X 611860.85; Y 4678727.97 UTM koordinatu puntuan. Valtierra mugarekin bat hego ekialdera segitzen du Arguedaskoa jo arte X 615916.20; Y 4676001.19 UTM koordinatu pun-

tu; handik ipar ekialdera joaten da Vedado de Eguaras deitu parajera iritsi arte, Valtierra mugapean, X 619637.32; Y 4677434.58 UTM koordinatu puntuan.

2. artikulua. 1. Errege Bardeako Parkeak Natur Baliabideak Antolatzeke Plana izanen du araubide, Nafarroako Gobernuak behin betikoz irailaren 7ko 266/1988 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuena, hain zuzen, eta ondorengo aldaketak, hala bada.

2. Nafarroako Ubidea, Errege Bardeako natur parkearen deklarazioa justifikatzen duten helburuekin bateragarri denez, aipatu natur parkearen lurralde-eremuan jar daiteke, edo eremu hori zeharka dezake, parkeko hurrengo aldeak salbu: natur erreserba, hezegune edo hegaztien babesgune berezizat jotakoak. Halaber, garapen eutsigarria sustatuko da, lurraldeko balio naturalen kontserbazioa eta ureztatutako nekazaritzaren aprobetxamendua uztartzeko.

3. artikulua. Natur parkea kudeatzea Errege Bardeako Komunitateari dagokio, eta berak izanen ditu indarra duen legediak Natur Parkeetako kudeaketa organoei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak.

4. artikulua. 1. Errege Bardeako Batzorde Aholkuemailea sortzen da, kudeaketaren titularraren Komunitateari aholku emateko organoa, Nafarroako Gobernuaren eta Errege Bardeako Komunitatearen arteko elkarlana bideratzeko, eta beste alde batetik Natur Parkearen kudeaketan interesa duten agenteek parte hartu eta laguntza emateko organoa izan dadin.

2. Batzorde Aholkuemaileari dagokio kudeaketaren titularrarentzat gutxienez ere honako gai eta puntu hauei buruzko txostenak prestatzea: Natur Parkearen Erabilera eta Kudeaketarako Plan Gidaria eta berorren aldaketak, gainontzeko plan, azterlan eta proiektu berariazkoak, eta Parkearekin zerikusia daukaten urteroko jardueraren, sustapen- eta bultzada-programak.

3. Batzorde Aholkuemaileak hamabost kide izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuaren bost ordezkari: bat Toki Administrazioako Departamentuak izendatua, bat Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak izendatua, bat Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak izendatua, bat Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak izendatua eta bat Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izendatua.

b) Errege Bardeako Komunitateak lau ordezkari izanen ditu, bi Batzorde Iraunkorrek izendatuak eta bi teknikari, Komunitatearentzat beren lan profesionala egiten dutenak.

c) Errege Bardeako Nekazarien Sindikatuko ordezkari bat.

d) Abeltzain Gremioen Batzordeko ordezkari bat.

e) Errege Bardeako Arrantzale eta Ehiztari Elkartearen ordezkari bat.

f) "Merindad de Tudela" ikerketa zentroaren ordezkari bat.

g) "Eder" partzuergo turistikoaren ordezkari bat.

h) Eta azkenik, ingurumena defendatzeko elkarte edo erakundeen ordezkari bat. Nafarroako Ingurugiro Kontseiluan ordezkaturik dauden ingurumen elkarte edo erakundeek izendutako dute ordezkari hori.

4. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ordezkaria arituko da Kontseilu Aholku-emailearen buru.

5. Kontseiluaren buruorde, Errege Bardeako Komunitatearen ordezkarietako bat arituko da.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Natur Parke izendatua izateko deklarazio honetatik eratorritako edukiak Errege Bardeako Komunitatearen Ordenantzetan ez badira sartzen Natur Baliabideak Antolatzeko Planean adierazitako epean, Nafarroako Gobernuak egoiak diren neurriak hartuko ditu horiek aipaturiko Ordenantzetan sartuak izan daitezzen.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean eratu da Kontseilu Aholku-emailea, eta lehen bilera egiten du.

Hirugarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Vedado de Eguaras, Rincón del Bu eta Caídas de la Negra Natur Erreserbetan dagokion kudeaketa burutuko du, eta horretarako erabiliko dituen irizpideak aurreikuspenen arabera Errege Bardea Natur Parkean aplikatuko direnkin bateragarriak izanen dira. Berdin jokatuko da Errege Bardea Natur Parkearekin mugakide diren eta aurrerantzean deklaratu daitezkeen beste natur-guneen kudeaketari dagokionean.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena

Urriaren 20ko 11/1992 Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen bera-riazko erregimenari buruzko Foru Lege arau-emai-leak, bere 34. artikuluan finkatzen du zer formula erabiliko dituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere langileen gorabidea bultzatzeko, eta artikuluko horrexen d) idazatian adierazten du "lanbide karreraren edo bestelako elementuetan oinarrituriko lansari izaerako eragingarriak ezartzeko, Nafarroako Gobernuak, halakorik bada, Foru lege proiektu bat igorriko dio Parlamentuari."

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren langile fakultatiboentzako lanbide karrera arau-tzea 1992-1995 aldian eginiko moldatze-prozesu iragankorraren ondo-ondotik heldu da.

Aldi hartan, jabetzapeko lanpostuan emandako zerbitzu-urteak irizpide bakartzat hartuta, banaka moldatu da lanbide karreraren subjektu zen fakul-tatibo bakoitza maila jakin eta aitortu batean, eta ondorioz bai soldata egokitu ere.

Moldatze sistema horrekin zera nahi zen: lan-bide karrera benetan aplikatzea hasteko unean, fakultatibo bakoitzaren egoera zehaztu.

Moldatze prozesua 1995eko abenduaren 31n bukatu zen, eta ondotik ez denez lanbide karrera-ko eredurik etorri, oraingo egoerak kontra egiten die hasieran iritsi nahi ziren helburuak: osasun arloko fakultatiboak motibatuta eta bultzatzea, ale-gia.

Halatan, bada, foru lege honek aurkeztzen duen lanbide karrera arautzeak bi zirkunstantziari eran-

tzun nahi die: alde batetik, lehenagoko sistema (antzinatasun hutsaren arabera egiten baitziren moldaketak eta soldatak) utzi eta sistema berri batera pasatu beharra, zeina merezimenduen eta emaitzen balorazioan ere oinarrituko baita; eta bestetik, 1996 urtetik foru lege hau aldarrikatu arte Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboek lanbide karrera ez aplikatuak sortu duen problema konpondu beharra, horrek kalte egin baitie langile horien asmo-esperantzei. Foru lege honek, halaber, 1992-1995 aldian aintzat hartu ez ziren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboek ere erantzuten die, mol-datze iragankorragatiko soldata-osagarria aplika-tzen baitie.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arloan fakultatiboentzako lanbide karrera eredu bat sartzeari, gainera, osasun laguntzaren hobekuntza kualitatiboa eta kuantitatiboa erdiesteko helburu orokorraren barnean egiten da, honakoak bezalako alderdi oinarritzekoak ezarriz eta garatuz: etengabeko prestakuntza hartzea laguntzaren kalitatea hobetzeko ahalegin indibidualaren adie-razgarritzat; bideak zabaltzea profesionalak gehiago eta eraginkorrago parte har dezaten osa-sun zerbitzuen kudeaketan eta zuzendaritzan; eta pizgarri eta motibazio mekanismoak sartzeari, aha-leginak egoki bideratu eta lortzen diren emaitzak aitormena izan dezaten.

Alderdiok garatzeko honako ekintza lerroak ezarri dira: 1. Kasuko profesionalak berak izatea protagonista foru lege hau abiaburu duen lanbide karrera eredu aplikatu eta gero batean garatze-rakoan; 2. Ebaluazio sistema araupekoak defini-tzea, lanbide jardura ebaluatu, aitormena eman eta saritzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ingurune guztietan aplikatu ahal izateko adinako malgutasunarekin; 3. Langilearen lan kalitatea, kantitatea eta erantzukizuna aintzat hartzen ez dituen soldata sistema bati akabera ematea; batez ere, kontuan harturik arrisku eta berme orekatuak eta arrazoizkoak badirela, bakoit-zarengan eta osasun sistemaren ekonomia oro-korrean eragin ekonomiko arrazoizkoa izan deza-ketenak.

Aipatu printzipioak, hala tokatzen bada, beste lanbide estamentu batzuei ere aplikatuko zaizkie, adibidez gainerako osasun fakultatiboek, erizain-tzako osasun langile diplomadunei eta beste esta-mentuei. Hori gogoan hartuta moldatu da foru

lege hau. Hala ere, hori egiteko, aintzat hartuko da negoziazio kolektiboaren eta lan baldintzen negoziazioaren prozesua; horrela, ondoren, berriazko foru lege proiektuak garatuko dira.

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru Lege honek arautzen duen lanbide karrera sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Erakunde autonomoaren langileei aplikatuko zaie, betiere lanpostua jabetzan badute, baldin eta lanpostua eskuratzeko eta lanposturako izendatua izateko Medikuntza eta Zirujiako lizentziaduna edo Farmaziako lizentziaduna izatea eskatu bazitzaie edo eskatzen bazaie.

2. Foru lege hau ez zaie aplikatuko kupoko eta eskualdeko fakultatiboei, eta ez udalen osasun langileei, non eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa eskualdaturik ez dauden, Toki Osasunean aritzen diren funtzionario gisa.

2. artikulua. Lanbide karreraren definizioa eta mailak.

Lanbide karrera aitormen indibiduala eta ekonomiko administratiboa da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzat, beren jarduerako jarraitasunagatik eta iraupenagatik, eta, aldi berean, bai lanbide hobekuntzan eta eguneratzean eta lortutako laguntza emaitzetan izandako merezimenduengatik ere.

Lanbide karreraren sistema bost mailatan ezartzen da, zeinetan gora egiteko baldintzak foru lege honen 5. eta hurrengo artikuluetan finkatzen baitiren. Lanbide karreraren maila horiek kontuan hartuko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostuak betetzeko eta sartzeko prozedura guztietan.

3. artikulua. Lanbide karreraren soldata.

1. Lanbide karrera diruz saritzeko lanbide karreragatiko osagarri bat esleituko da, zeina osagarritzko soldatatzat hartuko baita urriaren 20ko 11/1992 Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko Foru Lege arau-emaiaren 6. artikulua agintzen duenerako, eta zeinak iritsi den lanbide karreraren maila bakoitza saritzen baitu.

2. Lanbide karreragatiko osagarria hamalau hilekotan pagatuko da: horietako hamabi arruntak izanen dira eta bi apartekoak.

4. artikulua. Prestakuntza eta ikerketa jarduerarako orduak hartzea.

Profesionalen prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikorako jarduerak bultzatzeko, erregelamendu bidez finkatuko da zein baldintzatan izan-

go duten zilegi egiteko lanaldiaren zati bat hartzea, lanbide karreraren maila bakoitzean, prestakuntza, programa, beka, ikerketa klinikorako edo kudeaketarako proiektu eta antzeko jardueretarako.

5. artikulua. Mailaz igotzeko baldintzak.

1. Mailaz igotzeko, foru lege honen 6.1. artikuluan aipatzen den puntuazioa izan behar da, eta, aldi berean, aintzat hartuko da bai zenbat urte eman diren jarduera profesionalean eta bai laguntzazko, hobekuntzazko eta lanbide eguneratzeazko jardueretan; hartu ere, honela:

a) Eskatutako puntuazio osoaren 100eko 50, maila horretan eman diren urte kopuruaren arabera: zerbitzuan emandako urte oso bakoitzarengatik puntu bat kontatuko da, eta, gehienez ere, foru lege honen 6.1 artikuluan ezarritako puntuazioa lortu ahal izanen da.

b) Eskatutako puntuazio osoaren 100eko 50 laguntza jarduerak ebaluatzeko baldintzak eta lanbide hobekuntzakoak gainditurik izateagatik, foru lege honen 7. artikulua agintzen duenaren arabera.

2. Mailaz igotze horrek artikulua honetan eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzen den egunaren hurrengo urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

6. artikulua. Maila bakoitzeko egonaldiak eta mailaz igotzeko eskatzen den puntuazioa.

1. Lanbide karrerako maileara igotzeko, ondoren aipatzen diren puntuazioak eta egonaldiak frogatu beharko dira:

	Egondako urte bakoitzeko behar den puntuazioa	Baremoaren puntuazioa	Osotara behar den puntuazioa
I. mailan	5	5	10
II. mailan	7	7	14
III. mailan	8	8	16
IV. mailan	5	5	10
V. mailan	-	-	-

2. Egonaldia kalkulatzeko, lanpostua jabetzan edukita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan emandako zerbitzu urteak hartuko dira aintzat, foru lege honen 1.1. artikuluan aipatzen diren izendapenetako batekin. Europako Batasuneko estatuetako osasun sistema publikoetan lanpostua jabetzan edukita emandako zerbitzuak kontatzeko, foru lege honen bigarren xedapen gehigarriko bigarren idazatian eta bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan xedaturikoari jarraituko zaie. Orobat, ondorio guztietarako kontatuko da zerbitzu berezietan egondako denbora guztia,

edozein administrazio publikotan izendapen libreko postu batean zerbitzuak ematen egoteagatik.

7. artikulua. Baremoa eta helburuen zehaztapena.

1. Ebaluaziopeko aldian egindako lan jarduera erregelamendu bidez onesten den baremoaren arabera kontatuko da.

2. Baremoak banaka baloratuko ditu, batetik, laguntza jarduera, eta, bestetik, zuzendaritzakudeaketa, ikerketa eta garapen teknikorak.

3. Laguntza jarduerarako finkatu den puntuazioa gutxienez baremoak mailaz igotzeko eskatzen duen puntuazio osoaren erdia izanen da, eta ebaluatzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan helburuak zehaztu eta emaitzak baloratzeko sistema erabiliko da, erantzukizun partekatuen eta karrerako subjektu diren profesionalen partehartze benetakoaren printzipioak aintzat hartuz.

4. Zuzendaritza-kudeaketa, prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikoari dagokionean honakoak baloratuko dira: borondatez egiten diren etengabeko prestakuntzako jarduerak, hala irakastekoak nola ikastekoak, Osasun Sistema nazionalaren kreditazio prozedurak kontuan hartuz, besteak beste. Baremoan, bestetik, ikerketa jarduerak ere hartuko dira kontuan, adibidez zentro eta zerbitzuetako antolamendu eta lan sistemetan eragin zuzena duten hobekuntza proiektuak itxuratu eta gauzatzea, eta bai zuzendaritza eta kudeaketa jarduerak ere.

8. artikulua. Ebaluazio sistema.

1. Profesional bakoitzaren helburu eta emaitzak aintzat hartuta laguntza jardueraren ebaluazioa urtero egingen da, ekitaldia bukatuta.

Kudeaketa-zuzendaritza, prestakuntza eta ikerketa eta garapen teknikorako jardueren gaineko ebaluazioa interesatuak hala eskatuta egingen da, interesatu hori maila aldaketa bat egiteko moduan dagoenean.

2. Ebaluazio prozedura erregelamendu bidez ezarriko da, eta betiere honako elementuak izanen ditu:

a) Autoebaluazioa prozedura elementu oinarriko gisa, profesionalen beren iritzia erabat aintzat hartuta.

b) Ebaluaziopeko langileak parte diren osasun eskualde oinarrikoaren zerbitzu edo lantaldearen helburuak definitzen eta iristen norberak izan

duen partehartzearen ebaluazioa, kasuko unitatearen arduradunak egina.

c) Zentroko zuzendaritzaren txostena. Zuzendaritza horrek autoebaluazioa jaso eta bere txostena emanen du, harekin ados dagoen ala ez azaltzeko.

d) Ebaluazio Batzordeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritza egiten dion proposamena, hurrengo idazatian finkatzen diren baldintzetan.

3. Profesional bakoitzak, zerbitzuaren edo osasun eskualde oinarrikoaren arduradunak eta kasuko zuzendaritzak egiten dituzten balorazioen artean desadostasunik ez baldin badago, ebaluazio batzordeak baremoaren aplikazioari dagozkion alderdi formalak bete daitezzen begiratzea beste lanik ez du izanen.

Bestela, ebaluazio batzordeak arrazoen gainean erabakiko du zer balorazio eman behar zaion profesional bakoitzari, eta erabaki hori loteslea izanen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak maila aldaketaren gainean hartu behar duen ebazpenari begira. Ebazpen hori bai zentroaren zuzendaritza eta bai interesatuari emanen zaie aditzera.

9. artikulua. Maila jakin bateko egonaldia betetzearen ondorioak.

1. Maila jakin batean hainbat urte egon izanagatik lorturiko puntuazioak honako ondorioetako bat izanen du kasuko langilearentzat:

a) Mailaz igotzea, baldin eta gainera 5. artikuluan maila bakoitzera igotzeko behar den puntuazioa osatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen baditu.

b) Maila berean geratzea, ez baldin bada iristen 6.1 artikuluan mailaz igotzeko finkatzen den puntuaziorik. Horretara, gero batean mailaz igotzeko baldintza bakarra izanen da osasun-laguntza, lanbide hobekuntza eta eguneratze jardueren gaineko ebaluazio irizpideak betetzea, foru lege honetako 7. artikuluen arabera eskatuak.

10. artikulua. Ebaluazio batzordea.

Berriazko ebaluazio batzordeak eratuko dira honako eginkizun eremuetarako:

– Oinarriko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuna

– Laguntza Espezializatua.

Ebaluazio batzordeak parekideak izanen dira, eta zortzi kide izanen dituzte. Horietako lau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak izenda-

tuko ditu; beste lauak, berriz, eremu bakoitzeko fakultatiboen artetik izendatuko dira: bat sindikatuen ordezkariak proposatua eta beste hirurak batzorde tekniko laguntzakoek proposatuak, erregelamendu bidez ezarriko den prozeduraren arabera.

11. artikulua. Kreditazioa.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kasuko ebaluazio batzordeak hala eskatuta, kreditazio formal bat emanen du fakultatibo bakoitzak iritsi duen lanbide karrerako maila frogatzeko.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Lanbide karrerako osagarriaren urteroko zenbatekoak, 1996 urteari dagozkionak honakoak dira:

– II. maila	350.420 pta.
– III. maila	700.840 pta.
– IV. maila	1.051.260 pta.
– V. maila	1.401.680 pta.

2. Aurreko idazatian aipatu diren zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeak Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileen soldatarako unean-unean finkatzen duen gehikuntza-ehunekoren arabera.

Bigarrena. Egoera bereziak

1. Foru lege honetan arautzen den lanbide karrerako sistema 1.1. artikuluan aipatzen diren langileei aplikatuko zaie, Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako zuzendaritza, zuzendariordetza, burutza edo zuzendaritza-erantzukizuna duen beste edozein kargutan aritzen diren bitartean.

2. Osasun sistema nazionalaren beste eskualde zerbitzuetan lanbide karrerako sistemak garatzen ez diren artean, 1996tik aurrera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostu bat jabetzan erdietsi duten edo erdietsiko duten langileak, Foru Lege honen aplikazio eremuko izendapena dutelarik, Europako Batasuneko estatueta osasun sistema publikoetan emandako zerbitzuak frogatzen badituzte (lanpostua jabetzan zeukate-la), lanbide karrerako I. mailan sartuko dira.

Behin sartu direlarik, ebaluazio batzordeak ebaluatu eginen du zenbat urtetako jabetza-egonaldia duten eta zenbateko merezimenduak hartu behar zaizkien aintzat alegatu dituzten eguneratze

eta hobekuntza jarduerengatik. Proposamen hori oinarri, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ebatziko du lanbide karrerako zein mailatan sartu behar den fakultatiboa.

IV.a izanen da goreneko maila eta betiere Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egon beharreko denbora gutxienekoa bete behar da eta bai V. mailara pasatzeko lanbide hobekuntzako baldintzak ere.

3. Kupo eta eskualdeko langileak oinarriko osasun laguntzako ekipoetako edo laguntza espezializatuko zerbitzu hierarkizatueta lanpostuetan sartzen badira, eta beren lanaldia oro har haieran ematen badute, dagokien lanbide karrerako mailan sartuko dira, kontuan harturik zenbat urtetako jabetza-egonaldia duten eta betiere hiru-garren xedapen iragankorreko eskalari jarraituz.

4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ekin, 1992ko urtarrilaren 1etik, aldi baterako kontratua duten langileak, sartzeko eta izendatzeko Medikuntza eta Zirujiako edo Farmaziako lizentziadunak izatea eskatu bazitzaie, erabat sartuko dira lanbide karrera sisteman, lanpostua jabetzan eskuratzen edo eskuratu izan duten momentuan.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik, aurreko lerroaldean aipatzen diren langileak ebaluaziopean sartuko dira lanpostua jabetzan duten beren lankideen baldintza beretan, baldin eta langile horiek urteko lanaldiaren gutxienez 100eko 50 ebaluatu behar zaien lanpostu horretantxe eman badute.

1992ko urtarrilaren 1etik lege honek indarra hartu arte aldi baterako emandako zerbitzuei, erregelamendu bidez ezarriko den prozeduraren arabera eginen zaie ebaluazioa.

Ebaluatu beharreko zerbitzu urteak aintzat hartuko dira aldi baterako kontratua duten langileak lanpostua jabetzan eskuratzen edo eskuratu badute.

5. 1995eko abenduaren 31ra arte aldi bateko kontratuarekin emandako zerbitzuak ez zaizkie aintzat hartuko lanbide karrerako kontuetarako, ez gaur egun lanpostua jabetzan dutenei, ez gero batean jabetza eskuratzen dutenei ere.

6. Langileen ordezkarieta organoetako kideek legeak lanaldi osorako ezartzen duen ordu kreditua baldin badute eta egoera horretan irauten duten bitartean, mailaz igotzeko eskatu eta ebaluatuko den gauza bakarra, egonaldiak betetzeaz gainera, hauxe izanen da: prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikoko jardueri buruzko baremari dagokiona betetzea.

Hirugarrena. Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari atxikitako osasun langileak.

Lanbide-karreraren sistema aplikatuko zaie, foru lege honetako bigarren xedapen gehigarriko 2. idazatiaren arabera aplikatu ere, Administrazioan sartzeko lege honen aplikazio eremuan esandako tituluen jabe izatea eskatu zaien osasun langileei, baldin eta Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari atxikita badaude eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari eragiten dioten plangintza-, ebaluazio- edo ikuskaritza-zereginetan badihardute.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Moldatze iragankorreko mailen sendotzea.

1. Foru lege honen aplikazio eremuan sartzen diren langileak, 1996ko urtarrilaren 1ean 1992tik 1995era bitarte indarrean zen moldatze iragankorraren eremuan bazeuden, 1995eko abenduaren 31n moldatze iragankorreko maila gisa aitortua zuen lanbide karrerako maila ber hartan sartuko da. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera ondorioak izanen dituzten igoerak foru lege honen 5 eta 6. artikuluetako baldintza orokorren menpe geratuko dira, hurrengo idazatian xedatzen denaren arabera.

2. Aurreko araudiaren arabera aitortu zitzaizen azken moldatze iragankorreko mailan sartu zirenetik emandako zerbitzu urteak, lanpostua jabetzan zeukatela, kontuan hartuko dira hurrengo maila igoerarako.

Foru lege honen 6.1. artikulua arabera mailaz igotzeko eskatzen diren egonaldi-urteengatiko puntuazioak eskatuko dira, nola eta soilik foru lege honek indarra hartzen duenetik mailaz aldatzeko eskatzen den egonaldia betetzeko falta diren urteen parte proportzionalean.

Baremoagatiko puntuak ere, mailaz igotzeko eskatu diren urteak baloratu diren proportzio berean eskatuko dira. Osasun arloko eguneratze eta hobekuntza jarduerak ebaluatzeko, zilegi izanen da 1996tik aurrera egindako jarduerak ere kontatzea, interesatuak frogatzen baditu.

Bigarrena. 1996, 1997, 1998 eta 1999 urteetako maila aldaketa.

Foru lege honen lehen xedapen iragankorreko lehen idazatiak aipatzen dituen langileei dagokienez, zilegi izanen da aldatzea hasieran esleitu baino goragoko maila batera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura; aldaketa horrek eragina izanen du 1996ko urtarrilaren 1ean, 1997ko urtarrilaren batean, 1998ko urtarrilaren 1ean edo

1999ko urtarrilaren 1ean, fakultatiboak hala eskatzen badu, betiere Europako Batasunaren estatuetako osasun zerbitzu publikoetan, 1.1 artikuluan aipatu direnetako izendapen batekin jabetzan emandako zerbitzu urteen arabera. Honako urteak kreditatu behar dira langileak daukan kategoriaren arabera.

KATEGORIAK	
BFE ETA OOLT ^{KO} MEDIKUAK	ZERBITZUBURUAK ETA ATALBURUAK, KLINIKOAK
II. mailara igotzeko, 5 urte	II. mailara igotzeko, 6 urte
III.. mailara igotzeko, 14 urte	III. mailara igotzeko, 12 urte
IV. mailara igotzeko, 22 urte	IV. mailara igotzeko, 18 urte
V. mailara igotzeko, 29 urte	V. mailara igotzeko, 24 urte

Moldatzea fakultatibo bakoitza dagoen kategoriari dagokion urte eskalaren arabera egingen da, kontuan harturik zenbat diren lanbide karrerako helburu diren lanpostuetako edozeinetan, bereizketarik egin gabe, pilatu diren jabetzako zerbitzu urteak.

Igoera berriak foru lege honetan arautzen den prozeduraren arabera egingen dira. Merezimenduak baloratzeko ere zilegi izanen da 1996tik aurrera irabazitakoak kontatzea, interesatuak alegatu nahi baditu.

Hirugarrena. Lanbide karrerako sistemara sartu berriak diren langileak.

Foru Lege honen aplikazio eremuan dauden langileak, baldin eta 1992-1995 aldian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aritzen baziren baina aldi hartan indarra zuen fakultatiboan moldatze iragankorrean ez baziren sartu, lanbide karrerako sisteman sartuko dira sistema horrek indarra hartzen duenetik lehenbiziko hilaren lehen egunetik aurrera.

Langile bakoitzaren moldatzea behin besterik ez da egingen, eta fakultatibo bakoitzari lanbide karrerako maila bat esleituko zaio: hain zuzen ere, Europako Batasuneko estatuetako osasun sistema publikoetan, lanpostuaren jabe izanda, ondotik adierazten diren zerbitzu urteen arabera; betiere, zerbitzu urte horiek foru lege honen 1.1 artikuluan aipatzen diren izendapenetako batekin eman badira:

- 5 urte baino gutxiago, I. maila.
- 5 urtetik gora, II. maila
- 14 urtetik gora, III. maila.
- 22 urtetik gora, IV. maila
- 29 urtetik gora, V. maila

Lanpostuan jabetzan emandako zerbitzu urteen soberakina kontuan hartuko da hurrengo maila igoeretakoa hartuko da kontuan. Mailaz igotzeko Foru Lege honen 6.1. artikulua eskatzen dituen egonaldi urteetarako behar diren puntuazioak eskatuko dira, nola eta soilik foru lege honek indarra hartzen duenetik mailaz aldatzeko eskatzen den egonaldia betetzeko falta diren urteen parte proportzionalean.

Baremoagatikoko puntuak ere, mailaz igotzeko eskatu diren urteak baloratu diren proportzio berean eskatuko dira. Osasun arloko eguneratze eta hobekuntza jarduerak ebaluatzeko zilegi izanen da 1996tik aurrera egindako jarduerak ere kontatzea, interesatuak frogatzen baditu.

Igoera berriak foru lege honetan arautzen den prozeduraren arabera eginen dira. Merezimenduei dagokienez, 1996tik aurrera irabazitakoak kontatuko dira.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Zilegi izango da foru lege baten bidez finkatzea lanbide karrerako sistema Osa-

sunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste langileei ere aplikatzea, Osasun Sistema Nazionalean edo Nafarroako funtzio publikoan antzeko irizpideak ezartzen badira. Aplikatzeko, betiere negoziazio kolektiboa egin beharko da.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak foru lege hau argitaratu eta hurrengo hiru hilabetetan onetsi beharko ditu 7 eta 8. artikuluetan aurreikusten diren baremoak, zeinak osasun arloko fakultatiboei lanbide karrera aplikatzeko behar baitira.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Laugarrena. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau egoki garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Zerga batzuk aldatzeko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, zerga batzuk aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitarara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Zerga batzuk aldatzeko Foru Legea

Foru Lege proiektu honen xedea da zerga batzuk aldatzea, hiru eremutan:

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan.

a) Haren arauko 8. artikulua aldatzen da zerga kuotari dagokionez, erabilpen turistikoko ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei eta zerga arauari buruzko abenduaren 15eko 42/1998 Foru Legean eta zerga arauetan xedaturikoa bildu ondoren, eskubide horien eskualdekari ehuneko 4 aplikatzekoa dela deklaratzeko.

b) Arauko 31. artikuluari beste idazketa bat ematen zaio, 1987ko urtarrilaren 1az geroztik indarra duen edukitik abiatuz, orduan deklaratu baitzen 1. idazatian aipatzen ziren agiriak menpe ez zeudela, behin-behineko idazpenetan zerga oinarria biltzeko, arauak hori ez zeukan eta.

2. Kooperatiben zerga araubidean.

Ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea aldatzen da, zerga araua lan elkartuko kooperatiben eremuko funtsezko araurako egokitzeko. Bazkide guztien artetik mugarik gabeko eperako lan kontratua izan dezaketen soldatapeko langileak gehienez ere 100eko 10 izateko muga kentzen da eta ezartzen, horren ordez, bazkideek egiten dituzten legezko lanaldi guztien aldean langile horiek egiten dituztenak kontuan hartzen dituen beste muga bat.

3. Azkenik, euroa sartzeari buruzko abenduaren 17ko 46/1998 Legean ezarritakoei dagokionez, eragiketetan ez dela inolako tributurik sortuko adierazten da. Hauexek dira eragiketa horiek: kapital sozialaren zifraren berrizendatzea eta, berrizendatze horren ondorioz, akzio, partaidetza eta kuota sozialen balio izenduna zentimorik hurbilenera doitu beharra.

1. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Arauko 8.1.b) eta 31. artikuluei beste idazkera bat ematen zaie, Nafarroako Parlamentuak 1981eko martxoaren 17an harturiko Erabakiaren bidez onartu bezala. Hona hemen edukiak:

Bat. 8.1.b) artikulua.

“b) 100eko 4, ondasun higigarriak edo azienda eskualdatzea izanez gero, eta haiei dagozkien eskubide errealak osatu eta lagatzea, bermerako eskubide errealak, erabilpen turistikoko ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei eta zerga arauari buruzko abenduaren 15eko 42/1998 Legean eta zerga arauetan aipaturiko eskubideen eskualdeketa eta idazati honetako gainerako letretan aipatzen ez den beste edozein egintza atxiki izan ezik.”

Bi. 31. artikulua.

“31. artikulua.

Nafarroako erregistro publikoetan egiten diren behin-behineko idazpenak atxikirik egonen dira, haien xedea eskubide edo interes balioztakor bat baldin bada eta agintaritzak judizialak ofizios agindurik ez daudenean.

Bermatu, argitaratu edo osatzen den eskubide edo interesaren balioa erabiliko da oinarritako.”

2. artikulua. Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeko 7.3 artikuluari beste idazkera bat ematen zaio. Hona hemen haren edukia:

“3. Lan elkartuko kooperatiba batean mugarik gabeko kontratua duten besteren konturako langileek egindako legezko lanaldien kopurua ez izatea behin ere entitateko bazkide langileek egiten dituzten legezko lanaldi guztien 100eko 30 baino gehiago”.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Ez dute inolako tributurik sortuko kapital sozialaren zifra berrizendatzeko eta, berrizendatze horren ondorioz, euroa sartzeko abenduaren 17ko 46/1998 Legean araturiko akzio, partaidetza eta kuota sozialak zentimorik hurbilenera doitzeko eragiketek.

Bigarrena. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 21. artikuluan xedaturikoaren babesean, baimena

ematen zaio Nafarroako Gobernuari, 1999ko abenduaren 31 baino lehen, Ondare Eskualdake-ta eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruz gaur egun indarra duten xedapenak biltzeko.

Hirugarrena. Indarrik gabe gelditu da 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legea-ren hemezortzigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitaratzen den egunean hartuko du indarra, 1. artikuluko Bat idazatiak eta lehenengo xedapen gehigarriak sarturiko aldaketak izan ezik, horien eraginak 1999ko urtarrilaren 5az geroztik eta 1999ko urtarrilaren 1az geroztik aplikatuko baitira, hurrenez hurren.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, eskubide sozialen gutun baterako

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, eskubide sozialen gutun baterako Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, eskubide sozialen gutun baterako

1. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Foru lege honen xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, egoitza Nafarroan duten eta Nafarroan erroldatuta dauden (bi urteko egonaldia eta errolda) herritar guztiei lan bat eta oinarritzko errenta eskuratzea segurtatuko diena, herritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

Horretarako desegokitasun sozialen gainean esku hartzeko bideak ezarriko dira, izan ere berregituratze ekonomikoak eta berrikuntza teknologikoak gure gizartean, besteak beste, langabezia estrukturala, lan prekarietatea, pobrezia hazkuntza eta hiritarren gero eta zati handiagoaren bazterketa sozialaren kronifikazioa sortu dituzte.

2. artikulua. Foru lege hau iradoki duten printzipioek:

Herritartasun eskubide unibertsalak sendotzea lan merkaturako sarbidea itxirik duten pertsona guztientzat, behar den dirusarrerarik ez baitute besteak dituzten eskubide berekin bizitza duin bat izateko, kulturara iristeko, eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizartean integrazio osoa izateko ere.

Gizartearen produktutik hiritar bakoitzari dagokion zatia izateko eskubidea benetan aitortzea, bila ibili arren lanik aurkitzen ez dutenentzat oinarritzko errenta bat emanez.

Lanaldia banatzea lan bila dabilzanan artean, pertsona eta talde sozialen arteko elkartasun eta berdintasun printzipio unibertsalen izenean, eta hiritartasun eskubideak inplikatzeko duelako nor bere lanarekin laguntzea gizarte osoak ongizatea izan dezan.

II. TITULUA

Lanaldiaren banaketarako politika

3. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoko langileak.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 2000. urterako eta hurrengo urteetarako lan baldintzak sindikatuetakoa ordezkariekin negoziatzerakoan, Nafarroako Gobernuak lanaldia berrantolatu eta murrizteko behar diren neurriak aurkeztuko ditu Negoziazio Mahai Orokorrean, hartan azter daitezkeen; neurri horiek 35 orduko lan astea ezartzea bideratuko dute, lanaldi orokorra egiten dutenentzat, eta hein bereko lanaldi-murrizketa txandaka edo txanda berezitan lan egiten dutenentzat.

Asteko 35 orduko lanaldiaren urteko zenbaketak 1.592 ordu egiten du, guztira.

Neurri horiek aplikatzeak lanpostu berrien beharra ekarriko du, behar horiek betetzea ezinbestekoa bada zerbitzuaren maila mantentzeko. Horren berri eman beharko da kasuan kasuko enplegu eskaintza publikoan sartzeko.

Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu egonkorren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu beharko dira.

Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten bi sindikatuarekin 1999ko otsailaren 26an sinaturiko "Lanaldia berrantolatu eta murriztearen bidez kon-

tratazioa sustatzeko akordioa" izenekoan esaten denaren arabera, Nafarroako Gobernuak lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatuko ditu enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko organismo autonomoek partehartze maioritaria badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka.

Era berean, aparteko orduak mugatzearena ere bereganatuko dute, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten bi sindikatuekin 1999ko otsailaren 26an sinaturiko "Aparteko orduak deuseztu eta murrizteari buruzko Akordioa" izenekoan esaten denari jarraituz.

III. TITULUA Oinarrizko errenta

4. artikulua. Zenbatekoa.

Oinarrizko errentaren zenbatekoa Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 75ko dirusarreen adinekoa izanen da pertsona bakarrarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 15 baino gehiago bigarren pertsonarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 10 baino gehiago hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Familia batek ezin izanen du Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 125 baino gehiago jaso oinarrizko errenta gisa.

5. artikulua. Betebeharrak.

Oinarrizko errentaren pertsona onuradunek, hori kobratzeko egoeran dauden bitartean, Administrazioarekin negoziatutako akordio bat sinatu beharko dute, zeinetan ezarriko baita zein jardueratan parte hartu beharko duten hezkuntza, preskakuntza edo sustapenaren arloetan.

IV. TITULUA Finantzaketa

6. artikulua. Foru lege honetan hartutako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorren bidez finantzatuko dira.

Xedapen gehigarri bakarra. Bederatzi hilabeteren buruan, erregelamenduzko xedapenak eta xedapen osagarriak emanen dira, foru lege honetan ezarritakoa hobeki bete eta gara dadin.

Lehenbiziko azken xedapena. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Bigarren azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zirugiako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa arautzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zirugiako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zirugiako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa arautzen duena

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasunaren eremuan jarduteko ondoko printzipioak ezarri zituen: berdintasuna osasun sistemara heltzeko; gizarte efizientzia; osasun baliabide publiko guztiak erabiltzea, baita itun bidez elkartutako pribatuak ere; ospitalez kanpoko osasun laguntza espezializaturako Erabilpen Publikoko Laguntza Sareko laguntzazko baliabiak erabiliko dira; Osasun Departamentuak Nafarroako Osasun Zerbitzuaren goi-zuzendaritza, kontrola eta zaintza burutuko ditu; ospitaleak modu deszentralizatuan kudeatuko dira; Erabilpen Publikoko Laguntza Sare bat ezarriko da, Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin ituna egin ondoren; zentro eta laguntza zerbitzu pribatuak Erabilpen Publikoko Laguntza Sarean sartzeko itun berezia eginen da entitate edo erakunde bakoitzarekin.

Osasun prestazioaren eskakizunei erantzuteko epe egoki bat bermatzea da erabiltzaileak gehien baloratzen dituen alderdietako bat; osasun zerbitzuek modu egokian erantzuten ahal diete eta erantzun behar diete eskakizun horiei; horretarako komenigarria da hori legez arautzea, eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak aurreikusitako eskubideen esparrua osatzea.

Itxaron zerrendak izatea osasun sistema publikoen ezaugarrietako bat da, eta hori asko sentitzen dute herritarrek.

Halako desoreka bat dago osasun arloko eskarien eta zerbitzuen eskaintzaren artean; osasun publikoak berezko ditu desoreka horiek. Haien jatorria justizia sozialaren aplikazioan dago. Agerikoa da ez dela lortuko haiek desagertzea osasun sistema unibertsal honetan. Hori dela eta, beharrezkoa da behar diren irtenbideak bermatzea eta horiek onartzeko modukoak izatea arrazoizko atzerapen tarte batekin.

Ikuspegi horretatik, itxaron zerrendak ez dira laguntza medikoa murrizteko mekanismo bat, baizik eta hura arrazionalizatzeko modu bat, efizientzia eta gizarte berdintasuna lortzeko bidean. Esan daiteke gehien itxaroten duten gaixoak, sendagileak hala adierazita, bizitza arriskuan jartzen ez duten patologiak, edo ondorio kaltegarriak ekarriko ez duten patologiak dauzkaten gaixoak direla.

Hori esanda, egia ere bada beharrezkoa dela teknikoki eta sozialki onargarriak diren atzerapek ekin behar direla, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak errespetatu behar dituen eta Nafarroako herritarrei bermatu behar zaizkien mugak ezarri.

Testuinguru horretan ulertu eta planteatu behar dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak burutu behar dituen jarduketak; laguntza kirurgiko programatua epe egoki batean bermatzeko burutu behar dituen jarduketak, hain zuzen. Horri gagozkiola, honakoa xedatu da.

1. artikulua.- Gaixoaren erantzukizuna duen osasun sareko sendagileak ebakuntza egiteko adierazpena jakinarazi ondoren, ebakuntza hori erregelamenduz ezarriko den epean egin beharko da. Epe horretan ebakuntza egiten ez bada, gaixoak aukera izanen du Nafarroako Erabilpen Publikoaren Sareko zentroetan edo Osasun Sistema Nazionalako itunpeko zentroetan laguntza jasotzeko.

2. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, urtean behin, zirugiako itxaron zerrendei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa bat egiten du, ondoko jarraibideen arabera:

1. Oro har, gehienezko epe bat ezarriko da, hau da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentro, zerbitzu eta zirugiako espezialitate guztiei aplikatzen ahal izanen zaiena.

2. Hala zerbitzuen eskaintza malgutu eta egoitzearen ikuspuntutik, nola eskariak erregulatzearen ikuspuntutik, behar diren jarduketak planteatuko ditu, ahalegin berezia eginez praktika klinikoaren aldakortasunean eta prozedurek duten kostuaren/eraginkortasunaren ebaluazioan.

3. Lehentasuna emanen zaio titulartasun publiko zentro eta zerbitzuak erabiltzeari; halakorik ez bada, gaixoak itunpeko zentroetara bidaliko dira.

4. Burututako jarduketan eragina eta ezarritako epe-konpromisoen betetze maila ebaluatzea bide-

ratuko duten jarraipen eta kontrol tresnak ezarriko dira.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren urteko txostenak zirugiako itxaron zerrendei eta lorturiko emaitzei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa zehatza bilduko du.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

“San Frantzisko Xabierkoa” zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, “San Frantzisko Xabierkoa” zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“San Frantzisko Xabierkoa” zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Legea

Erreforma psikiatrikoaren aurreratzeak eta sendotzeak barne hartu behar dute adimen gaixoei ematen zaien gizarte- eta osasun-laguntza, alde batetik bermatuz laguntza psikiatrikoaren unibertsaltasuna, berdintasuna eta finantzaketa publikoa, eta bestetik, behar objetiboen arabera, gaixoei dagozkien gizarte eskubideak, gizarte laguntza jasotzen duten pertsonak diren heinean. Baliabide materialak eta giza baliabideak modu ezin hobean aprobetxatu behar dira, Foru Komunitatearen gaur egungo lehentasun eta behar sozialei dagokienez, kontuan hartuz Nafarroako adimen osasunaren gaurko eredu komunitario eta integratzailea.

Bestaldetik, Nafarroako gizarte laguntzaren sistema, bere garapena eta heldutasunagatik, gai da gizarte prestazioak lortzeko zailtasunak dituzten adimen gaixoen gizarte-beharrizanen aitorpean aurrera joateko. Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legeak gizarte prestazio horiek onartzen dizkie beste minusbaliotasunei.

1. artikulua. “San Frantzisko Xabierkoa” Zentro Psikogeriatrikoan emaniko osasun laguntza doakoa izanen da; beraz, ez zaio inongo tarifari lotuko.

2. artikulua. “San Frantzisko Xabierkoa” Zentro Psikogeriatrikoan eguneko zentro gisa nola egoiliarrendako ematen den laguntza, gizarte zerbitzutzat hartuko da; horren ondorioz, Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen erantzeari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legean, eta maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuan aurreikusitakoari egokituko zaio.

3. artikulua. Gizarte prestazioaren xedea adimen gaixotasunetik datorren minusbaliotasuna izanen da, eta Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Legean aurreikusten diren laguntzen antzekoa izanen da.

Xedapen indargabetzailea

1. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

D saila:
HITZARMENAK

Nafarroako Foru Komunitateko Foru Administrazioa eta Defentsa Ministerioaren arteko hitzarmen markoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean destinatuta dauden unitate, zentro eta erakunde militarretako kideek kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jarduerak egin ditzaten

OSOKO BILKURAK BAIMENA EMANDA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari Nafarroako Foru Komunitateko Foru Administrazioa eta Defentsa Ministerioaren arteko hitzarmen markoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean destinatuta dauden unitate, zentro eta erakunde militarretako kideek kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jarduerak egin ditzaten, izenpetzeko

eskatutako baimena ematea erabaki zuen. Haren testua 1999ko martxoaren 23ko 24 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu Estatu Batuak eta Britania Handia Iraken aurka etengabe burutzen ari diren eraso militarrik

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak 1999ko martxoaren 25ean hurreno Ebazpepan onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu Estatu Batuak eta Britania Handia Iraken aurka etengabe burutzen ari diren eraso militarrik". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu Estatu Batuak eta Britania Handia Iraken aurka etengabe burutzen ari diren eraso militarrik

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako gobernuari eskatzen dio bere ahalegin sendoenak bildu ditzan nazioarteko komunitateko ahaleginekin, buruan NBEko Idazkari Nagusi Kofi Annan duten horiekin, irtenbide negoziatua eta behin betikoa aurkitzeko gatazka honetarako; irtenbide horrek

barne hartu beharko ditu bai Iraki ezarritako zigorrak berehalakoan altxatzea, bai herri horretako subiranotasun nazionala erabat errespetatzen dela bermatzea, inolako hipotekarik egin gabe herri hartako etorkizun ekonomikoaren eta politikoaren gainean; izan ere, herri irakiarraren eskumen eksklusiboa baita bere etorkizuna.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki proposamen hau ondokoei igortzea erabaki du:

Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusiari.

Espainiako Estatuko Gobernuburuari.

Kongresuko eta Senatuko buruei.

Autonomia-erkidegoetako buruei.

Autonomia-erkidegoetako parlamentuetako buruei.

Irakeko Errepublikak Espainian duen enbaxadoreari.

Estatu Batuek Espainian duten enbaxadoreari.

Britania Handiko Erresuma Batuak Espainian duen enbaxadoreari.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalia basatien erasoan aurrean neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalia basatien erasoan aurrean neurriak har ditzan". Biltzarrak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu zuen.

Mozio hori 1999ko martxoaren 16ko 22 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 1999ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 1999ko

martxoaren 16ko 22 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--